



# IDAZTEKO ZALETASUNA BULTZATZEKO EKIMENA

VIII. Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketan parte hartzeko epea zabaldu dute, azaroaren 20ra arte >5

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2009-09-19**

VIIURTEA 1.780.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Iban Gurrutxaga, Mikel Atxega, Iker Goenaga eta Beñat Barandiaran diskoaren aurkezpenean. R. CALVO

## Bialean aparkatu ahalko da lau egunez, proba moduan

**TOLOSA** Mugikortasun Astearekin hasiko dira datorren astean; trafikoan probak egingo dituzte 7

## MALENKONIAREN BIDETIK GOENAGAREN LAUGARREN LANA

**ZIZURKIL** Iker Goenaga trikitilari zizurkildarrak 13 kantuz osaturiko '...arteraino' lana aurkeztu du, estreinatu berri duen zigiluarekin 4

**Ibarrako  
Lauburu taldeak  
gaur ekingo dio  
areto fuboleko  
denboraldiari 3**

**Behin betiko izaera  
eman dio Udalak  
asteroko azokari 4**



Paper fabrikaren eraikin zaharra eraisten, atzo. I.T.

## Amaroz paper fabrika eraisteko lanei ekin diete

**TOLOSA** 292 etxebizitza egingo dituzte, erdiak babesekoak; 2013 urterako amaitu nahi dituzte 6

**2000E PLANAREN MEMENTOA DA  
CITROËN MEMENTOA DA**



CITROËN C4  
HDi 11.600€tik



CITROËN C3 | C1 GAMA  
7.300€tik | 6.200€tik



CITROËN XSARA PICASSO  
HDi 12.800€tik



CITROËN C4 SEDÁN  
HDi 15.800€tik

CITROËN KONFIDANTZAZKO PLANA: LANGABEZI ESTALDURA OPARI  
ETA GAINERA %0ko MATRIKULAZIO ZERGA:  
C1 | C2HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 FAP/110 CMP FAP



CITROËN preferire TOTAL

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

**Z** **Zurea da hitza** 

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 telefono zenbakian.



Euskal Western elkarteak antolatutako txapelketan eskualdeko batzuk izan ziren, Zaldibarren. HITZA

**Team&cattle penning txapelketa**

Euskal western elkarteak antolatuta penning txapelketa izan da Zaldibarren pasa den irailaren 12an eta 13an. Bidegoian, Ateasu, eta Leaburuko batzuk egon dira bertan. Oso emaitza onak lotu dituzte.

**Joxe Manuel**

**Voith-Gorostidiren txoltoa**

Gogoratzen det nola Voith-Gorostidiko etxebizitza tasatuen kontua hasi zenean entzuten zena eta Udalak esaten zuena: gazteak herriaren gelditzeko, etxebizitza onak, sekulako prezioak... Txoltoa. Baina hain izan da txoltoa 30 etxebizitza hutsik gelditu direla, hau da, 340 lagun inguruk ezezkoa eman diotela txoltoari. Etxebizitza libre batekin alderatuz txoltoa izango da, 20 kilo gutxiago ordaindu behar delako. Baina txoltoa izango zen etxebizitza libreen prezioa «normala» izango bazen. 60 kilo baino gehiago ordaintzea etxebizitza ba-

tengatik normala bada, ikusita nolako soldata «normalak» dauden gaur egun...

Kontua da gustura jakingo nituela proiektu honen zenbakiak: zenbat diru ordaindu zitzaizen enpresei leku horretatik joateko? Zeinek ordaindu du diru hori? Zenbat ordaindu behar izaten dute konstruktoreek Tolosako Udalarik etxebizitzak egin ahal izateko? Zenbat kostatuko zaie konstruktoreei etxeak eraikitzea eta beraz zer etekin jasoko dute etxe libreetatik, etxe tasatuetatik eta babes ofizialeko etxeetatik? Baten batek zenbaki horien berri balitu gustura jakingo nituzke. Agian orduan ikusiko zen zein zentzat izan den Voith-Gorostidiko benetako txoltoa.

**Tolosar bat**

**Danak Villabonara**

Villabonan 24 orduko futbol txapelketa egingo dute larunbaten eta jendea joatera animatzeko idazten det. Nik ez det txapelketan parte hartzeko izena eman, futboleko nahiko txarra naiz ta, baina bai gerturatuko naizela giroa bizitzera.

Oker ez banago pintxoak ere izango dira, sagardoa... Futboleko oso iaioak ez garenok ere besteen jokaldiak ikusteko eta giro ona gozatzeko aukera izango dugu 24 orduz, animatu!!

**Jon**

**Zakur kaka gehiagoko kalean**

Ez dakit benetan horrela den, baina uste dut azkenaldian zakur kaka gehiagoko ikusten direla kalean. Agian, lehen ere horrela zen, baina azken asteetan gehiago topatu ditut. Ez dakit benetan zein den honen arrazoia. Beraz, zakurren jabeek luzatzen diet keza, ez dugulako zertan etengabe lurrera begira ibili behar kaletik. mila esker!

**Gorka**

**Su txiki batetik sutea**

Aurrekoan lanetik etxera nindoala, Tolosatik Azpeitiarako bidean, harritura geratu nintzen. Errepidearen alboko malkarra su hartuta baitzegoen. Ertzainak bertan zeuden eta ziurrenik, hau kontrolatu

nahian ibiliko ziren. Hurrengo egunean berriz, Tolosara ailegatzean, izugarriko keak ikusi nituen mendi aldean, Montesku inguru horretan. Hori dela eta, bel-durtuta aruntz joan nintzen, beste suteran bat izango zelakoan. Esan beharra daukat, bietan ere, eguraldian nahiko goibela zegoela, eta xirimiria ari zuela. Baina hala ere, badaezpada, jendea esan nahi diot kontuz ibiltzeko baratzetako belarrak, eta soroetakoak erretzeko su egiten dutenetan. Hau kontrolatu beharra dago. Horrelako kasu askotan gertatu dira suteak. Oso arriskutsua baita. Horregatik, berriro ere diot, kontuz ibili eta zaindu inguruak.

**Gorka**

**Garagardo Azokan bikain**

Atzo [herenegun] Garagardo Azokan egon nintzen eta egia esan eskerrak eman behar zaie bertan antolatzen ari direnei eta baita zerbituzten egon direnei. Egon naiz herri gehiagotan baina Tolosako oso ondo antolatuta dago eta leku dezentekin. Milesker!

**Aimar**

**B** **Blogteka** **'www.erlemundua.com'**

Web-ean erleez eta erleen inguruko gaiez hitz egiten da.

Honen helburuetako bat erleak euskaraz ezagutaraztea da. Hurrenbeste liluratzen gaituen animaliak guretzat eta ekosistemarako duen garrantziaz kontura gaituzten.

Erlezainarekin geratzea duzue pertsonalki mundu hori ezagutzeko edo bera, talde ezberdinetara gerturatuz (eskola, lagunarte...), azalpen didaktiko zoragarriak jasotzeko.

**Hirukide ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

**HITZA Argazki Lehiaketara argazkiak bidaltzeko azken egunak****Komunikabideak** »

Irabazleak Getariko Saiz hotelean asteburu bateko egonaldia irabaziko du.

**ERREDAKZIOA**

Heldu den irailaren 24a izango da azken eguna HITZAren Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Dagoeneko irudi asko bidali dituzue, baina lehiaketa azken txanpan sartu da eta gero eta denbora gutxiago duzue. Saria ez dira nolana hikoak izango.

Izan ere, irabazleak Getarian kokatuta dagoen Saiz hotel dotorean asteburuko egonaldia irabaziko du, gosaria eta guzti.

Bigarren postuarentzat ere sari ederra prestatu dugu. Tolosa Karlis argazki dendan argazki erreportaje bat irabaziko baitu.

Bestalde, finalera heltzen diren zortzi argazkiak Karlis argazki dendaren erakuslehoan izango dira ikusgai, guztien artean gustukoena aukera ezazuen.

Hirugarren postua eskuratzen duenak sabela ondo asetzeko parada izango du, Gabiriko Korta jatetxean bi laguntzako mariskada bat irabaziko baitu.

**Finalistak, irailaren 27an**

Beti bezala, zortzi argazki helduko dira finalera. Hauek irailaren 27ko alean argitaratuko dira. Ondoren, astebeteko epea izango dute harpidedunek bozkatzeko, urriaren lehen egunera arte. Eta hiru irabazleak, berriz, urriaren 4ko alean jakinaraziko dira. Zorte on!

**» SARIAK****■ Lehen postua.**

Getariko Saiz hotelean bi lagunentzat asteburuko egonaldia, gosariarekin.

**■ Bigarren postua.**

Tolosako Karlis argazki dendan argazki erreportajea.

**■ Hirugarren postua.**

Gabiriko Korta jatetxean bi laguntzako mariskada.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri** eta  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**  
**DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urturen  
eskertzak



Jakiez gain arropa ere erosi ahal da Ibarroko ostegunetako azokan. R. CALVO

## Udalak behin betiko izaera eman dio asteroko azokari

**Ibarra** » 18 postuak, orain arte bezala, ostegunetan jarriko dituzte Emeterio Arrese plazan 08:00etatik 14:30era.

### ERREDAKZIOA

Orain arte Ibarroko Udalak bultzatuko ostegunetako azoka behin behineko izaera bazuen ere, hilaren 24tik aurrera behin betikoa izatera pasako dela jakinarazi dute.

Udalak azoka behin betiko finkatzeke legezko dokumentuak onartu ditu. Dokumentuek azokaren ordutegia finkatzearekin batera (08:00etatik 14:30era) postuak

jaritzeko zein kentzeko aurretik eta atzetik ordu bana eskaintzen die saltzaileei.

Datorren ostegunetik aurrera, hortaz, produktu desberdinak saltzen dituzten 18 salmenta-postu izango dira Emeterio Arrese plazan ostegunero.

### Askotariko produktuak

Azokan hestebeateak, gaztak, fruta eta barazkiak eskura daitezke eta baita pasta eta gozokiak ere. Sektorrehonen baitan bakailaoa, olio eta fruitu lehorrak ere salduko dituzte.

Jakiez, gain, hala ere, gazteen-tzako arropa, poltsak, aterkiak, imitaziozko bitxiak eta alfonbrak ere eskuratu ahal izango dira.

## Bizi-Nahiren jaiak hilaren 24tik 27ra

### ERREDAKZIOA

Ibarroko Bizi-Nahi pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak bere jaiak ospatuko ditu hilaren 24tik 27ra. Urteroko moduan bazkideen baz-

karia eta txapelketa ugari antolatuko dituzte; bazkideen bazkari eta afariak, txapelketa ugari, ibilaldi neurtua, bingoa, hamaiketakoak, dantzaldia...

### » EGITARAUA

#### Hilak 24, osteguna

- **12:00.** Jaiari ongi etorria emateko ikurrina altxatzea eta txupinazioa egingo dute elkartearen aurrean.
- **16:00.** Mus, tute, eskoba eta punittu txapelketa azkarra.
- **20:00.** Bazkideentzako luntxa.

#### Hilak 25, ostirala

- **09:30.** Ibilaldi neurtua animatzen diren bazkideentzat. Amaierakoan hamaiketakoak banatuko dute.
- **20:00.** Zuzendaritza batzordeko kideek prestatutako eta zerbitzatutako afaria elkartean.
- **Aflostean** dantzaldia.

#### Hilak 26, larunbata

- **11:30.** Bikote mistoez osaturiko Toka Txapelketa. Ondoren, bertaratuak guztien artean Ibarroko tomate eta piparrak banatuko dituzte.
- **16:30-19:30.** Bingoa klubeko aretoan (sari bereziak banatuko dituzte).

#### Hilak 27, igandea

- **09:00.** Diana.
- **11:00.** Hildako bazkide guztien aldeko meza, San Bartome elizan.
- **14:00.** Bazkaria Belabietan.
- **19:30.** Jaiari amaierako txupinazioa.

## Urriko lehen astean hasiko ditu dantza eskolak Alurrek

**Ibarra** » Benito Izagirre kultur etxean dauden matrikula orriak bete behar dira izena emateko hilaren 30a bitarte.

### ERREDAKZIOA

Urriko lehen astean hasiko dituzte dantza eskolak Alurreko kideek. Izena eman ahal izateko matrikula orriak Kultur Etxean eskura daitezke eta informazio gehiago behar dutenek 635 75 70 48 telefono zenbakian lortuko dute (09:00etatik 11:00etara eta 15:00etatik aurrera deitu behar da).

4, 5 eta 6 urteko gazteak asteazkenetan ariko dira (17:00-18:00) eta gainontzeko haurrak astelehenean; 6 eta 7 urtekoak 16:45etik 17:45era, 7 eta 8 urte dituztenak 16:45etik 17:45era, 8 eta 9 urteko gazteak 17:45etik 18:45era, eta bukatzeko 9 eta 10 urte dituztenek 17:45etik 18:45era izango dituzte eskolak.

Gazteei dagokionez hiru talde izango dira: 10 eta 12 urte bitarte-



Ibarroko III. Dantzari Txiki Eguneko Alurreko txikiaren emanaldia. A. IMAZ

koak, 11 eta 12 urte dituztenak eta 12 eta 16 urte bitartekoak. Lehenengoan eskolak ostiraleetan (17:15-18:15) izango dira; bigarren-koak asteartean (18:15-19:45) eta ostiraleetan (17:15-18:15) ariko dira; eta azkenak ostiraleetan (18:15-20:15) izango dituzte eskolak.

Eider Epelderen eskolei dagokionez, Gazteak I taldea ostegunetan ariko da (18:15-20:15); Gazteak II asteartean (19:15-20:45); eta gazteak III ostiraleetan (18:30-20:00).

Aiert Behobide Aukeraneko

dantzari gazteak, aldiz, bost talde izango ditu. Beteranoak ostegunetan izango dituzte eskolak (20:30-22:30); Gazteak I taldeak ostegunetan (17:15-19:00); Gazteak II asteazkenetan (18:30-20:15); Gazteak III asteazkenetan (20:15-22:00) eta mutilek ostegunetan (19:00-20:30).

Bukatzeko helduek astearte goizean (10:00-11:30) eta astelehenera arratsaldean (20:00-21:30) fandangoa eta arin-arina ikasteko aukera izango dute. Beteranoek astelehenean izango dituzte klaseak (20:00-21:30).

## Areto-futboleko liga hasiko du Lauburu taldeak, gaur

**Ibarra** » Taldeko zuzendaritzak denboraldi honetako sarrerak doakoak izatea erabaki du krisi garaia dela eta.

### ERREDAKZIOA

Ibarroko Lauburu areto-futboleko taldeak gaur hasiko du 2009-2010 denboraldiko liga etxean, Belabietako kiroldegian, izango den partidarekin. Bilbo Exbasa taldearen aurka ariko da. Talde ona izan arren bi denboraldi dira jada ohorezko maila utzi zuela. Ibarroko taldea bezalaxe, maila jaitziera dela eta, fitxaketa onak alde batera utzi eta jokalaririk gabe egin du lan.

Ibarroko taldeak ere jokalaririk gabe hasiko du denboraldi honetan. Gehienak herrikoak bertakoak dira eta gazteak badira ere betaranoak direla esan daiteke, maila handiko taldeekin lehiatu baitira azken bi urteetan. Honexegatik egin du Txubel entrenatzaileak gazte hauen aldeko apustua.

### Zaleen babesa jaso nahi dute

Areto-futboleko taldeak zaleen babesa eskatu nahi du eta baita partidetara gerturatzeko ere, izan ere zuzendaritzak sarrera doakoak

izatea erabaki du, egoera ekonomiko nahiko kaskarra dela eta.

Bestalde, gazteen talde probintzialak ere hasi du aurrendenboraldia. Iazko ekipo bera da, baina lau baja eta jokalaririk berri bat dituzte. Atezain berri bat ere behar dutela esan dute eta beraz, interesa dutenei entrenamenduetara joateko eskatzen diete (astearte eta ostiraleetan 18:00etatik 20:00etara, Belabietako Kiroldegian) eta bertan entrenatzailearekin, Ion Artolarekin, hitz egiteko.



Txubel entrenatzailea. M. SOROA

## T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbolak:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Malenkoniaren ildotik darrai Iker Goenagak '... arteraino' diskoan

**Zizurkil** » 13 kantu biltzen dituen lan berria aurkeztu berri du trikitilari zizurkildarrak; zigilu propioa estreinatu du, gainera, Ez Dakienak Baleki izeneko, hain zuzen.

REBEKA CALVO

Lagunez inguratuta eta urduri samar aurkeztu zuen Iker Goenaga trikitilari zizurkildarrak bere bakarkako laugarren diskoa, *...arteraino* (Ez Dakienak Baleki, 2009). Lanak 13 kantu biltzen ditu eta Goenagaren beraren hitzetan «malenkonia transmititzen» du disko honek ere, bere lagun batek esan ohi dioen bezala.

Hiru urte igaro dira *Amorrua* (Elkar, 2006) kaleratu zuenetik eta disko berria prestatzeko unea kantua prest izan zituenean iritsi zitzaion. «Kantua dutudalako egiten ditut diskoak eta ez alderantziz».

## Denbora eta distantzia kontzeptuak

13 kantuek distantzia eta denbora kontzeptuaren inguruan hitz egiten dutela dio musikariak eta lanaren izenburua ere hortik dator. Honakoan ere, aurreko bakarkako lanetan bezala (*Soinugorri*, *Txikitxuterik* eta *Amorrua*) abesti gehienetako letrak zein doinuak bereak dira, baina badira ere Gar-

## Hamahiru abestiek denbora eta distantzia kontzeptuen inguruan hitz egiten dute

**Diskoan musikari ugari hartu dute parte: Mikel Markez, Aritz Lonbide, Alaitz Telletxea...**

txot Unsain gaztearen hitzak, Koldo Izagirrearenak eta Joseba Sarrionandiarenak. Doinu herrikoiak ere entzun ahal dira lanean, baita Quebeceko kantu tradizional bat kasu. Musikari ugari ere gonbidatu zituen diskoan parte hartzera: Mikel Markez (ahotsa), Aritz Lonbide (tronpetata), Gartxot Unsain (ahotsa), Alaitz Telletxea (ahotsa) eta Iñaki Alberro (txeloa).

Omenaldi xumeak ere eskaini nahi izan ditu lanean eta horren adibide da Xabier Portugal zenaren omenezko *Antxoko Portugal* kantua edota *Eta egunero dugu bezpera* abestia, zeinak aipatu Koldo Izagirre idazle antxotarraren



Iban Gurrutxaga, Iker Goenaga, Beñat Barandiaran eta Mikel Atxega diskoaren aurkezpenean, Donostian. R. CALVO

letra duen. Mikel Laboa ere ez zuzen ahaztu aurkezpenean.

## Aurreko diskoen ildo bera

Diskoak aurrekoen ildo bera jarraitzen duela dio musikariak, baina oraingoan kutsu elektronikogutxiago du *Amorrua* arekin alderatuz gero. «Instrumentu bakoitzaren

soinua indartu dugu», zehaztu du.

Musikariak ere «betikoak» dira, hau da azken urteetan berarekin aritu direnak eta Goenagaren hitzetan «benetako altxorra» direnak: Amezketako Iban Gurrutxaga kitarra elektrikoan, Anoetako Mikel Atxega baxu elektrikoan,

Zizurkileko Beñat Barandiaran kitarra akustikoan eta Hernaniko Iñigo Egia perkusioetan. «Diskoan galdera honi erantzuten diot: zer nintzateke zuek gabe? ikara eta hotza», dio trikitilariak musikariaren inguruan ari dela. Talde izaera honek dakar bere hitzetan abestiak denekin artean lantzeko aukera iza-

# «Kantua egiteko abiapuntua nire soinu tresna da beti, bere soinu eta mugekin»

IKER GOENAGA » Trikitilaria

R. CALVO

## Zergatik erabaki zenuen zigilua sortzea?

Gaur egun musikaren munduan salmentak eta kontzertuak daudden bezala diskoetxeek ez dituzte apostu fuerteak egiten. Niri eskaintza bat egin zidaten eta zenbait jende argitaratu du eskaintza horrekin, baina ni kalkulatu egin eta konturatu nintzen nik esfortzu handiagoa egiten banuen posible zela aurreztea. Honek niretzako estres handia suposatzen du, baina aldi berean, gure aukera bakarretarikoa da.

## Nolakoa izan zen grabaketa prozesua?

Hilabete eta erdi edo ibili ginen grabaketan, egunean 8 bat orduz lanean arituta. Hiru masterizazio ere egin behar izan genituen...

## Zergatik?

Estudioa taldekide batena denean, konfiantzarekin, bueltaka ibiltzeko aukera daukazu. Lehena egin eta ilun samar geratu zela irudit



R. C.

zitaigun, berriz ere saiatu ginen... Honek sekulako arriskua dauka, prozesua amaitezina izan daitekeelako.

## Diskoaren aurkezpenean esker on asko banatu dituzu. Lagunen laguntza ezinbestekoa izan da, ezta?

Mundu guztia inplikatu da eta oso

eskertzekoa da. Nik autoproduzioaren inguruan ez nekien ezer eta informazioa pasatzeko garaian lagunak izan ditut alboan (Tapia, Markez...). Bakoitzak bere esperientzia eskaini dit.

## Musikarientzako ere laudorio asko izan dituzu...

Beraiek nirekin egin dute bat era-

tea eta era berean, grabazioan eta zuzenekoaren lotura estua lortzea. Proiektua talde lanean oinarritzen da, azken batean.

## Argitaletxe berria

*...arteraino* k, dena den, badu berrikuntza gehiago ere.

Izan ere, aurreko hiru lanak Elkar diskoetxearekin kaleratu zituen, baina oraingoan zigilu propioa estreinatu du, Ez Dakienak Baleki. «Zama gehiagorekin egin dut aurrera, baina egokiena lana

## Gurrutxaga, Atxega, Barandiaran eta Egia musikariak Goenagaren «altxorra» dira

## Zigilu berriarekin, Ez Dakienak Baleki, kostuak murriztea lortu du trikitilariak

norberak egitea zela erabaki nuen, kostuak ere murriztuz. Elkarreko eskaintza ere izan nuen, baina azkenean nire kabuz argitaratzea erabaki nuen», azaldu du trikitilariak.

Grabaketa 2008. urteko abendua eta 2009. urteko urtarrila artean egin zuten Hernaniko O Brother Studioan eta perkusionistak berak, Iñigo Egia, nahastu eta masterizatu zuen. Argazkiak eta diseinua berriz, Trintzerpe-Pasaiaiko Lemarenak dira.

Lehen kontzertua etxean, Zizurkilen, eskainiko du datorren urriaren 3an Atxulondon 20:00etan.

bat ezerren truke eta urteak darmatzazu batera. Talde bat mantentzea ez da bat ere erraza. Komunikazio ona edukitzea denborarekin lortzen da eta guk badugu eta mantentzen dugu. Oso harro sentitzen naiz zentzu horretan.

## Kutsu elektronikoa alboratu duzula esan duzu, zer aurkituko du entzuleak'...arteraino'n?

Soinu adetik *Txikitxuterik* diskoarekin zerikusi gehiago du, baina azken batean nik uste dut nabaritzen dela kantua nik eginen ditudala, edo hori pentsatu nahi dut, behintzat. Arrastoa hor dago. Beste itxura batekin aurkez dezakezu, baina esentzia hor dago.

## Oraindik ere musika tradizionala duzu oinarrian, hortaz.

Nik egiten dudana ez da musika tradizionala, baina bai dela abiapuntua, oinarria. Kantuak egiteko garaian abiapuntua nire soinu tresna da beti, bere soinu eta muga guztiekin. Horrek ere kantu mota bat egitera baldintzatzen nau.



## Laburrak

### Dantza ikastarorako ordutegia zehazteko bilera

**ALEGIA** ● Dantzako ikasturte berria hastear dago baina ordutegia zehaztea falta da. Horretarako bilera deitu dute, hilaren 23rako. Arratsaldeko seieta Kultur Etxean elkartzuko dira.

### N-1 errepideko Alegiako 431 lotunea moztuta

**ALEGIA** ● N-1 errepidean Alegiako 431 lotunea, irailak 22ko arratsaldeko 18:00ak bitarte moztuta egongo da, Tolosa-Alegiako bizikleta eta oinezkoen bidean hobekuntzak egiteko lanak direla eta. Ikaztegiatiko N-1 428 ikaztegiatiko lotunetik atera beharko da.

### Odola ematera joateko aukera Amezketan

**AMEZKETA** ● Hilaren 22an, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara odola emateko aukera izango da gela polibalean. Beraz, ohiko odol-emaile edota oraindik eman ez dutenek, hitzordua dute hurrengo asteartean.

### Lehenbailehen ahuntzak erretiratzeko deialdia

**AMEZKETA** ● Buruntzunzi, Anduiz eta Larrondo azpiko inguruetan ahuntzak dabiltzala jakinik, hauen jabeek deia luzatzen die Amezketako Udalak berehalako erretira ditzaten. Gehienez ere 15 eguneko epea izango dute horretarako. Gipuzkoako Mendietako Ordenantza edo Arautegiaren arabera debekaturik baitago.

### Kirol Astea antolatzeke bilera hilaren 22an

**ANOETA** ● Aurten ere, iaz bezala Kirol Astea antolatu nahi dute. Joan den urtean batelaren inguruko proiektioa, mendi diaporama, pilota jokoak, txirrindularitzari buruzko mahai-ingurua, cycling maratona, ginkana familiarra eta *Kirolari anoetarrek* erakusketa izan zen. Aurtengo egitaraua lantzen hasteko lehen bilera, hilaren 22an, 19:00etan udal etxean egingo dute. Herritar orori deitzen zaio bileran parte hartzea eta bere proposamenak ematera.

# VIII. Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketa martxan

**Ipuin Lehiaketa** » Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrentzat irekia da.



VII. Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketako irabazleak. I. GARCIA

#### ERREDAKZIOA

Teodoro Hernandorena VIII. Ipuin Lehiaketa abian da. Zizurkilgo Udaleko Euskara Sailak, Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo jendearen artean idazteko zaletasuna sustatu nahi du lehiaketa honekin. Lehiaketa honetan parte hartzeko aukera herri horietako herritarrek bakarrik izango dute.

#### Azken eguna azaroak 20a

Gaia libre izango da eta erabili beharreko hizkuntza euskara izango da. Aurkezten diren lanek egile bakarra izan beharko dute eta partaide bakoitzak gehienez ere bi lan aurkezteko aukera izango du.

Lan bakoitzaren hiru kopia aurkeztu beharko dira eta azken eguna azaroaren 20a izango da. Zizurkilgo udal etxean edota Udaltzategian aurkeztu beharko dira 14:00ak baino lehen.

Aurkezten diren lanak, bost mailatan banatuko dituzte: 6-8 urte artekoak, 9-11 urte artekoak, 12-13 urtekoenak, 14-16 urtekoak eta azkenik 17 urtetik gorakoak izango dira. Eta maila horien arabera, lanen luzerak zehaztu dituzte: lehenengoak, orrialde batekoak eta bigarrenak, 2 orrialdekoak aurkeztu beharko dituzte. 12-13 urte artekoak, gutxienez bi eta gehienez 4 orrialde aurkezteko aukera izango dute. 14 eta 16 urte artekoak, gutxienez 4 eta gehienez 8 orrialde eta azkenik 17 urtetik gorakoak, gutxienez 5 eta gehienez 12 orrialde idatzi beharko dituzte. Kasu guztietan, DIN A4 neurrian

aurkeztu beharko dira eta makinan edo ordenagailuz idatzita egin beharko dute.

#### Sari banaketa abenduak 18an

Sari banaketa abenduaren 18an egingo dute Atxulondo kultur etxean. Maila guztietako lehen bi postuak sarituko dituzte. Lehenengo eta bigarrenentzat opariak izango dira. Hirugarren mailakoentzat, irabazleentzat 90 euro eta bigarrenentzat oparia. 14-16 urtekoentzat lehenak 150 euro eta bigarrenak oparia eta 17 urtetik gorakoentzat 450 euro eta bigarrenentzat oparia.

## Gimnastika erritmikoa eta Nekazal Azoka

**Alegia** » Gimnastika erritmikoa eta Nekazal Azokan izena emateko aukera zabalik dago Kultur eta Kirol Etxean.

#### ERREDAKZIOA

Alegiako Kultur eta Kirol etxean ikastaroak eta udazken kulturala prestatzen ari da.

#### Gimnastika erritmikoa

Ikastaro berrien artean, gimnastika erritmikoa antolatu dute 6 urte

gorako haur eta gazteei zuzendua. Ostiraletan izango litzateke, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Ikastaroaren hasiera urriaren 2an izango da eta irailaren 30era arte eman daiteke izena.

#### Nekazal Azoka

Udazken kulturalaren barruan, urriaren 18rako Nekazal Azoka prestatzen ari dira. Azokan parte hartzeko interesa duenak, Kultur Etxean eman beharko du izena urriaren 9a bitarte. Azoka honetan, alegiarrek bakarrik parte hartu dezakete.

## Bere zigorra betetzeko Espainiaratuko dute laster Pako Larrañaga

#### ERREDAKZIOA

Espainiako Gobernuko Bigarren Lehendakariordeak atzo jakinarazi zuen, Ministro Kontseiluak, Pako Larrañaga Espainiaratzea baimendu duela. Eguna zehaztu ez badute ere, egun gutxi barru iristea espero da. Pako Larrañaga bizi osorako zigorra betetzen ari da Filipinetan eta zigorra murriztuz gero 14 urte eta 9 hilabeteko zigorra bete beharko du, ala ezean, 25 urte eta 2 hilabete.

## Irurtzun eta Aurrera Saiaz, Joxean Tolosa Txapelketaren finalean, bihar

**Amezketan** » Larrunarri pilotalekuan izango dira finaleko hiru partidak, 17:00etatik aurrera.

#### ERREDAKZIOA

XX. Joxean Tolosa Txapelketako finalak iritxi dira. Amezketako pilota egunik handienetakoa, final hau dela diote eta Larrunarri pilotalekua herritar eta kanpotarrez lepo egon ohi da. Pilotari txapelduak eta Txapelketa guztian zehar jokatu duten guztiak «zoriandua eta txalotzeko gozamen» ere Amezketako Larrunarri pilotalekuan izango da.

#### Pilotari handien harrobi

Gaur egun pilotari handiak direnak edota bere garaian izan ziren Artola, Koka, Imaz, Haritz, Galarza IV, Otaegi, Saralegi, Peñagarikano, Mendizabal, Belloso, Arruti eta Olazabal pilotariak, txapelketa honetan parte hartutakoak dira. Eta ziur, aurtengoan finalera iritsi direnaren ere izango dela hauen ondorengo izango denik. Bihar, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, hiru partida jokatuko dituzte bata bestearen atzetik.

Irurtzun eta Aurrera Saiaz Pilota eskoletako pilotarien arteko lehia izango da. Kadeteetan, Aurrera Saiazko Arratibel eta Irurtzongo Berazoren arteko partidua izango da. Gazteetan, Aurrera Saiazko Apezetxea eta Irurtzongo Zabaletaren aurkako lehiak gozatu ahaliko da. Eta nagusietan berriz, Aurrera Saiazkoa den eta pilotara itzuli berria den Onsalo, Irurtzongo Armendarizen kontra ariko da. Eta, sari banaketaren ostenan, aitari eder bat eginez emango diote amaiera egunari.

Larrunarri pilotalekura hurbiltzen diren guztiak, pilotari gazteen jokuaz eta hauen grinaz gozatzeko aukera izango dute. Eta honen bestez, hiru hilabetetan egindako lanak bere fruituak emanak izango ditu eta XX. Joxean Tolosa Txapelketak hurrengo urterako arte agur esango du.

**maizpide 09/10 kurtsoa** euskaltegia-barnetegia · lazkao  
943 88 92 31 · lazkao@maizpide.com

Ordukako ikastaroak.  
Euskara-planak  
enpresa eta  
erakundeentzat.

Barnetegian  
hilabeteko ikastaroak.  
Familia  
euskaldunetan  
egoteko aukera.

C-1 maila on-line.  
Autoikasuntza.  
4. maila.

Larunbatetan  
goi mailako  
ikastaroak.



Paper fabrikaren eraikina nola eraisten duten ikusi zuten Eusko Jaurlaritzako eta udaleko ordezkariak, atzo, i. t.

## Amaroz paper fabrikaren eraikin zaharra eraisten hasi dira, etxebizitzak egiteko

**Hirigintza** » 292 etxebizitza egingo dituzte, erdiak babesekoak; 2013 urterako espero dute lanak bukatzea.

**INIGO TERRADILLOS**

Hasi dira Amaroz paper fabrikaren eraikin zaharra eraisten, eta behin lan hauek amaitu eta lurrak deskontaminatzen dituztenean, hau da, 2011 urtean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak, Orubide eta Visesa (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra) sozietate publikoaren bidez 292 etxebizitza eraikitzeari ekingo diote. Horietatik erdiak, 146, izango dira babesekoak, eta hauetatik %30 babes ofizialekoak eta %20 prezio tasatukoak izango dira. 2013 urterako amaitzea aurreikus-tzen dute.

Eraisketa-lanak uztailearen 27an hasi zituzten. Egun, gaikako eraisketa bukatuta dago (lehenengo metalezko zatiak, egurra, amianto, eta abar kenduz), eta eraikina eraisteko lanei ekin diete (eraikina suntsitu, etab.). Lan hau ere faseka egingo dute, kasuan kasuko ingurumen-baimenak eskuratu ahala.

### «Erakundee arteko lankidetzaren ondorio»

Hain zuzen ere, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua Iñaki Arriola izan zen atzo paper fabrika zaharraren instalazioetan, eraikinen gaikako eraisketa ikusten. Sailburua pozik agertu zen «erakundeen arteko lankidetzak horrelako proiektuak garatzea ahalbideratzen duelako, eta horri esker industria eremu bat birgaitu eta babestutako etxebizitzak eraikitze modua dagoelako».

Jokin Azkue Tolosako alkateordeak, bere aldetik, esan zuenez, «proiektu honek etxebizitza besteak egitea ahalbidetuz gain, paper fabrika egonkortzea ere bermatuko du». Izan ere, 40.000 tonako produkzioa zuen Amaroz paper fabrikak lehen, eta «ezin zuen kopuru hori gehitu, baina orain, eragiketa honekin, Legorretan 120.000 tona ere ekoiztu ahal-ko ditu». Bestalde, Amaroz auzoaren eraberritzea ere ekarriko du proiektu honek, bertan azpiegitura berriak egitea ari baitira iker-tzen. «Bizilagunekin ari gara biltzen bertako beharrak aztertze, eta horren arabera erabakiko dugu zeregin».

### Akordioaren nondik norakoak

2008ko apirilaren 21ean sinatu zuten hirigintza hitzarmena Amaroz paper fabrikak, Tolosako Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Orubidek

### » DATUAK

#### Proiektua

- **Etxebizitza.** 292 eraikiko dituzte. Erdiak libreak eta erdiak babesekoak. Horietatik, %30 (96) babes ofizialekoak, eta %20 (50) prezio tasatukoak.
- **Azalera.** 23.150 m<sup>2</sup>.
- **Jabetzaren egitura.** %100 Orubide.
- **Amaroz paper fabrika.** Legorretako Paperalia zenaren lekuan ekingo dio ekoizpenari. 40.000 tona ekoiztetik, 120.000 tona ekoiztera pasako da.

#### Aurreikusitako epeak

- **2010 iraila.** Urbanizazio obren hasiera, 2011 ren irailera arte.
- **2011 iraila.** Eraikuntza obren hasiera. 24 hilabete
- **2013ko 3. hiruilekoa.** Etxebizitza eraikuntzaren amaiera.

paper fabrika dagoen eremuan etxebizitzak egiteko, eta «ondorioz, paper fabrikaren etorkizuna bermatzeko». Hitzarmen honek Amaroz paper fabrikaren leku aldatzea ahalbidetu zuen, izan ere, Orubidek, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren sozietateak, Amaroz lantegiari erosi zion lur eremua. Horrela, Amaroz paper fabrikak Legorretako Paperalia erosi ahal izan zuen. Aurtengo uztailean itxi zituen atek Tolosako lantegiak, eta orduan ekin zioten jardunari, leku berria.

Bestalde, Orubide arduratuko da eraikinak eraitsi eta lurrak deskontaminatzeko gastuen finantzaketaz, lurzorua erosteko eta urbanizazioa kudeatu eta finantzatzeko gainera. Inguruak garatzeko planeamendua ere bere eskumena izango da.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundia- ren parte-hartzea ere azpimarratu dute: «Legorretan, Amaroz paper fabrikak jardunari ekin dion industriagunean, ibai bazterra pasealeku batekin hobetu dute, GI-2131 errepedea ibaira hurbildu eta aprobexamendua osoa errepedearen alde batean batuz, eta Amaroz auzotik igarotzen den N-130 errepede zatiaren ibilgarritasuna hobetze, biribilgune bat egiteko obrak ere finantzatu du Aldundiak».

### @ X. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA.

Asteartetik larunbatera bitarte TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK bere lehia- ketara heltzen diren argazkiak argitaratuko ditu. Horretaz gain, gure webgunean ikusgai daude orain arte heldu diren guztiak. Paisaiak, eraikuntza ikusgarriak, beste herrialdeetako ohiturak, mendiak, itsasoa, pertsoniak... denetarik topa daiteke argazki hauetan. Ez egin zalantzarik eta bidali zure udako argazkia ere. Sari interesgarriak lortzeko aukera dago. Irailaren 24ra arte duzu horretarako aukera. Anima zaitetz!

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Urkizutik Zelatunera mendi irteera egingo dute bihar

**Aisia** » Datorren astean ipuin kontaketa saioa eta Auzo Bazkaria antolatu dute; gaur da izena emateko azken eguna.

### ERREDAKZIOA

Alurtxiki Auzo elkarrekin antolatuta, mendi irteera egingo dute, bihar, Urkizutik Zelatunera. Bertan hamaiketako goxoak egiteko aukera izango dute, horrela, «Ernioko magalean egun pasa ederra igaroz».

Horrez gain, hainbat ekintza dituzte aurreikusita datorren astera-ko. Batetik, datorren ostegunean, hilaren 24ean, Galtzaundiren eskutik Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, bertako txikiei eta ez hain txikiei hainbat pasadizo kontatzeke.

Bestetik, datorren asteko aste- buruari begira, larunbatean, hilaren 26an, bazkaria egingo dute. Elkartekoek azaltzen duten bezala, «ohitura onak mantentzearen pasa den urtean izan zen Auzo Bazkariko arrakasta ikusirik eta Auzo txikiko bizilagunak, Albiztur goiko eta Urkizuko auzotarrak elkartzeko» aurten ere auzo bazkaria egitea pentsatu dugu. Bazkari- rako sarrerak lortzeko azken eguna gaur izango da, eta 652 70 96 80 telefono zenbakira deitu beharko da.

## Laburrak

### Helduen Hezkuntza Eskolan izen-ematea

**HEZKUNTZA** » Hilaren 1etik aurrera zabalik dago Helduen Hezkuntza Eskolan (Igaralde kalea, 23) matri- kula egiteko epea. 18 urtetik gorakoentzat doako ikasketak eskaintza dute bertan. Ikasketak eskaintza zabalik dute bertan, aurtengo ikastur- terako. 943 67 26 60 zenbakian eskatu daiteke informazio gehia- go.

### Pefiascal fundazioan izena eman daiteke

**HEZKUNTZA** » Ikasturte berrirako lau ikastaro eskainiko dituzte Pefias- cal fundazioan: Soldadura, meka- nizatua (torno, fresadora, taladro edo CNC), ostalaritza eta arotza. 16 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako dira ikastaroak, eta ba- koitzat 2.000 ordu inguruko irau- pen du, horietatik, 500 praktikak izango dira. Izena emateko funda- ziora jo daiteke (Usabal industri- agunean) edo 943 67 61 61 edo 943 67 51 95 zenbakietara deitu beharko da.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

- **Etxebizitza.** Villabona eta Iruran etxebizitza alokatzen da. Bata 600 euroan, eta bestea 650 euroan. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.
- **Kafetegite-txokolategia.** Tolosan, erdigunean, martxan dagoen kafe- tegite-txokolategia alokatzen da. Arrazoiak: jubilazioa. Telefono zen- bakia: 669 82 70 96.

### LANA

- **Lan bila.** Neska eskalduna es- kaintzen da lanerako. Esperientzia

zerbitzari gisa, nahiz beste hainbat lanetan. Autoarekin, mugitzeko arazorik gabe, eskualdean. Deitu 679 63 13 53 telefono zenbakira.

■ **Zaintzailea.** Emakume eskalduna eskaintzen da adineko per- sonak zaintzeko. Interesatuak deitu 665 72 04 26 telefono zen- bakira.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Alegian, San Juan auzoan etxebizitza salgai. Bi loge- la, sukaldia eta egongelarekin.

Prezioa: 156.000 euro. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.

■ **Etxebizitza.** Alegian, Larraitz au- zoan, etxebizitza berritua. Sukalde ederra, bi logela, egongela eta bi bainugekin. Prezioa: 174.000 euro. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Gorosabel kalean, bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bata, bi logelakoa, 180.000 euro. Bestea, berriz, 156.000 euro. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.

**Ingurumena** » Datorren astean hasiko da Tolosako Mugikortasun Astea; ekitaldiez gain trafikoan proba bat ere egingo dute.

**ERREDAKZIOA**

*Hobetu zuren herriko klima* lelotzat hartuta datorren asteartean ekingo dio Tolosak Mugikortasun Asteari. Oraingo honetan ere, herriarrak sentsibilizatzea da xede nagusietako bat. Industriek, etxek eta neurri handi batean trafikoko eragin dako kutsadura eta isurketa energetikoak bero iturriak dira, eta negutegi efektua areagotzen laguntzen dute.

Mugikortasun Astearen baitan, alde batetik, Tolosaren egoera zehatza zein den jakiteko neurketa batzuk egingo dituzte, eta bestetik, zenbait proba ere egingo dituzte. Antolatutako ekimenak, Udalaren, Ikastetxeen eta Zuloaga Txiki Ingurumen Zentroaren elkarlanean emaitza dira. Duela urte batzuk hasi ziren bidea egiten, eta jada, fruitu ugari eman ditu.

Herritarrek sentsibilizatzeko lan horretan, aholkuen eskuorria argitaratzea erabaki dute. Hauek ikasleek banatuak izango dira herritarren artean. Eskuorriak bilduma izateko ideiarekin sortu dira eta horrela, nahi duenak, ingurumenarekin erlazionatutako alderdi ezberdinei buruzko aholkuak gorde ditzake. Tolosarren artean banatuko dira aleak bildumako 6. zenbakia dira eta praktikan jartze-

# Lau egunez, Bialeetik bi noranzkotan igaro eta aldi berean aparkatu ahalko da

to ikasbide erraz batzuk ematen dira bertan. Bizitzeko era jasangarriago bat eraman nahi duten pertsonentzat.

**J. A. Irazusta pasealekuan trafiko proba**

Mugikortasun asteartean baitan, zeresan handia emango duen ekintzetako bat izango da trafiko aldaketarena. Proba gisa, lau egunetan, bi noranzkotan ibili ahal izango dira autoak bialeetik barrena. Baina, aldi berean, bertan aparkatzeko aukera ere egongo da. Atzoko aurkezpenean Yurre Peñagarikano zinegotziak azaldu zuenez, errepidea neurtu dute, eta honetarako lekua badago. Hala ere, errepidea estutuko denez, autoak mantsoago igaro beharko dira hortik. Argi utzi nahi izan dute ere, hau proba bat besterik ez dela izango, eta izaten duen erantzunaren arabera, aztertuko dela, gero, horrela utzi edo ez. Honekin, autoak inguru horretatik abiadura baxuagoan joatea lortu nahi dute, eta bide batez, bizilagunen aparkaleku beharri erantzun.

Peñagarikanoren esanetan, lehen ere antzeko zerbait egin zuten, eta «egun bi noranzkotan igaro daiteke bialeetik, duela bi urteko Mugikortasun Astearen proba bat



Atzo aurkeztu zuten Tolosako Mugikortasun Astea, Udaleko, Zuloaga Txiki eta ikastetxeetako kideek. E. EZEIZA

egin genuelako». Aldaketa honen ondorioz, 90 auto utzi ahal izango dira bertan.

**Performancea gazteenen eskutik**

Eskola Agenda 21en bitartez bul-tzatuta, eta Ingurumen Zentroak kudeatuta, *Stop auto! Performancea* egingo dute Tolosako Laskorain, Samaniego eta Hirukide ikas-

tetxeetako Lehen Hezkuntzako ikasleek. Desfile bat irudikatuz, 09:30ak aldera abiatuko dira Ferialekutik, hilaren 22an, eta herrigunetik barrena itzuli bat egingo dute.

Ekintzak erreibindikazio kutsua izango du, eta Tolosako ikasleek, autoak kaleetan okupatzen duten espazioaren eta berokuntza globalean duten eraginaren ingu-

ruan, hausnarketa egitera gonbidatuko dituzte beste herritarrek. Ibilbidean zehar hiru geldialdi egingo dituzte eta hauetan, antzezlan bat aurkeztuko dute. Kar-toizko autoekin, bizikletaz eta oinez egingo dute bidea. Hauekin batera, festa giroa zabaltzeko, txaranga eta trikiti doinuak ere entzun ahal izango dira goiz horretan zehar.



## Bizikletari errepassoa ematen

**BELAUNTZA** » Eskualdeko hainbat herritan ari dira burutzen ekitaldiak aste honetan zehar, Mugikortasun Astea dela eta. Berastegi eta Belauntzan, esaterako, bizikleta txekoak antolatuta zituzten atzorako. Hala ere,

eguraldiak lagundu ez zuenez, Berastegin bertan behar utzi zuten ekimena. Halaber, Berrobin gaur egin behar zuten mendi ibilaldia ere bertan behera geratu dela jakinarazi du Udalak. E. EZEIZA

**» MUGIKORTASUN ASTEA**

**Irailak 22, asteartea**

- **10:00.** *Stop auto* desfilea eta performancea Tolosako kaleetan zehar, herriko ikastetxeen eskutik.
- **19:00.** Mugikortasun mahaiaren bilera Tolosako udaltxeko areto nagusian. Bertan, bigarren Mugikortasun Planaren aurkezpena egingo da.

**Irailak 24, osteguna**

- **07:30etik 14:00etara.** Trafiko datuen biketa Orixe institutuko DBH 4 mailako ikasleen eskutik.
- **19:15etan eta 21:45etan.** Zine Foruma Leidorren. Felipe Vega eta Julio Llamazaresen *Eloxo da distancia* filma izango da ikusgai.

**Irailak 25 eta 26, ostirala eta larunbata**

- **17:00etatik 20:00etara.** Ostiralean, txapen tailerra Triangulo plazan.
- **16:30etik 21:00etara ostiralean eta larunbatean, 11:00etatik 14:00etara / 16:30etik 21:00etara.** Mugikortasun irauinkorraren erakusketa eta zirkuitoak, Triangulo plazan. Segway, bizikleta elektrikoak, txitak, eta abar.
- **Ostirala eta larunbata.** Car Sharing elkarteak stand batean berri-lanaren berri emango die herritarrei. Standean bi hitzaldi emango dira. Ostiralekoa

- 19:00etan izango da eta larunbatekoa 12:00etan.
- **Larunbat goizean.** Stop CO2 Euskadi atera kontuak (IHOBÉ). Jolas baten bitartez, herritarrek klima aldaketaren alde zer ari diren egiten jakiteko aukera izango dute datorren larunbatean.

**Irailaren 24tik 27ra, ostegunetik igandera**

- **Trafiko probak.** J. A. Irazusta pasealekuan (biala) egingo dira probak. Neurketak egin ostean, kotxentzako bi norabide eta aparkalekua sartzen direla ikusi dute. Hori dela eta, datorren ostegunetik igandera, bialean aparkatu ahal izango da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko komunikazio talde batek  
**Kazetaritza** edota  
**Euskal Filologian** lizentziatuak edo ikasleak behar ditu.

Interesatuak deitu  
**661 678 817** telefonora



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Antzerkia

■ **Tolosa.** *Atxikistan* antzerki musika 18:00etan Triangulon.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Desgracia* filma Leidor aretoan gaur 22:30ean, igandean 19:30ean eta astelehenean (ikuslearen eguna) 20:30ean. *Pagafantas* filma berriz gaur 19:30ean eta igandean 22:00etan.

### Deialdiak

■ **Bedaio.** Irailaren 27an II. Raid Lasterketa antolatu dute Bedaion, 25 km-ko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartearen ([www.bedaio.com](http://www.bedaio.com)).

■ **Izaskun.** Izaskun izena dutenen festa Izaskunen bihar: 12:00etan toka, jarraian meza, bazkaria Izaskun jatetxean eta musika Iñigo Perurenarekin.

■ **Tolosa.** X. Garagardo Festa Zerkausian 18:00etatik aurrea, kirol taldeek eta Udalak antolatuta.

■ **Tolosa.** *Zoriontsu izan: bizitzan konfiatuz, onartuz eta barre eginez* jardunaldiak Kultur Etxean hilaren 21, 22 eta 23an.

■ **Urkizu.** Irailaren 26an Alurtxiki elkarteak auzo afaria antolatu du. Izen-ematea, irailaren 18ra arte, 652 709680 telefono zenbakian.

### Erakusketak

■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korrao kalea, 2. 943670128

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.


■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Getariko Saiaz hotelean bi lagunentzat asteburuko egonaldia irabaziko du irabazleak; bigarrenak Karlis dendan argazki erreportajea eta hirugarrenak Gabiriko Korta jatetxean bi lagunentzat mariskada.

# Azken txanpan...

**SANT PETERSBURGO** • Kultur bidaiek ere aukeratsuen dituzte batzuek. Hauen adibide da Goizargi. Hauxe azaldu digu: «Argazki hau Sant Petersburgon ateratakoa da eta auzkaldean ikus daitekeen eliza hori, *La iglesias de la Sangre derramada* du izena. Oso interesgarria zen, eta kanpotik zituen koloreak, zoragarriak». GOIZARGI IGLESIAS GARCIA DE ITURROSSE



**LANDAK** • Etxetik gertuago, Landetan, irudi eder hau harapatu du Ainhoak: «Argazki honetan ikus daiteke itsasoak eta eguzkiak ilunabarra iristean nola egiten duten bat. Lainoek eta itsasoak eguzkia jan behar dutela dirudi. Landetako paisaia honen (Mimizan-plage) atlatiar itsaso mugitua jartzen digu bistan. Egunero horrelako ilunabarra ikusteak, merezi du!»

AINHOA BARANDIARAN MUJICA

## A Agurrak



### Urte askoan

**Juan Larreta Jauregi (Amezketeta).** Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



TXOKA hitza

HITZAK harpidedun batentzat **2 menu oso** ditu

Tolosako  
**XI. Garagardo Azoka**

**sariduna**

• Lourdes Zabala (Tolosa)

Irailak 19rako • Larunbata

sarrerak bertan eskuratu ahal izango dituzu izena emanda



sarrerak

